

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lehendakariak Gazteriaren Sariak banatu dizkie 2018an arlo horretan gehien nabarmendu diren pertsona eta erakundeei

M^a Teresa Álvarezek, Kaskikos Gazte Elkarteak eta Nafarroako Medicus Mundiko Gizarte Ekintzako taldeek jaso dituzte gaur Pertsona Gaztearentzako, Parte-hartze Sozialerako eta Erakundearentzako sariak

Astelehena, 2018.eko azaroak 26

[Nafarroako Egunaren](#) oroitzapenezko ekitaldien testuinguruan, Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek gaur banatu dizkie, Nafarroako Jauregiko Tronuen Aretoan, [Gazteriaren 2018ko golardoak](#) M^a Teresa Álvarez Esparzari, Pertsona Gaztearentzako modalitatean, Beriaingo Kaskikos Elkarte gazteari, Parte-hartze Sozialerako modalitatean, eta Nafarroako Medicus Mundiko GAS taldeari (Gizarte Ekintzako Taldeak), Erakundearentzako sarien arloan.



Rubén Goñi, Ainhoa Aznárez, Barkos Lehendakaria, Herrera Kontseilaria eta Adela González, Teresa saridunarekin eta Golardoak ere jaso dituzten Kaskikos Elkarte eta GAS taldeko ordezkariak.

Lehendakariarekin batera bertan egon dira Kultura, Kirola eta Gazteriako kontseilaria, Ana Herrera; Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, Ainhoa Aznárez; Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko (NKGI) zuzendari kudeatzailea, Rubén Goñi; eta Gazteriako zuzendariordea, Adela González.

Uxue Barkos Lehendakariak sarituak zoriondu ditu, eta azpimarratu du haien ibilbide eta lan pertsonalek sari horiekin aintzatetsi nahi diren balioak ordezkatzeko dituztela, "Nafarroan, gazteen autonomia, parte-hartze soziala eta bizi-kalitatea errazten baitute".

Solidaritate, parte-hartze eta konpromisorako sariak

Gazteriaren sariaren bidez, 14 urtetik 30 urte bitarteko gazte nafar bat goretziko da, haren ibilbide pertsonala gizarte modernoaren berezko balioekin (elkartasuna, ahalegina, lana, tolerantzia, kulturartekotasuna, nazioarteko mugikortasuna, bizimodu osasungarria, etab.) estuki lotuta dagoelako eta gainerako gazteentzat eredugarria delako.

Saria **M^a Teresa Álvarez Esparzak** eskuratu du, eta Barkos

Lehendakariak azpimarratu nahi izan du “Grezian errefuxiatutako emakumeen duintasunaren alde egiten duen borroka nekaezina dela”. 24 urteko gazteak, 2016. urtean, Nora Yarnoz lankidearekin batera, “Beauty fot Refugees” GKE sortu zuen, “pertsona ahulei duintasuna itzultzeko helburuarekin”, eta emakume horiengana norberaren higie eta zaintzarako objektu txikiak iristeko lanetan aritzen da. Ibilbide pertsonalean, Barkosek nabarmendu nahi izan du “solidaritatea, ahalegina, lana, tolerantzia, kulturartekotasuna, nazioarteko mugimendua eta gainditzea” bezalako balioak biltzen dituela.

Parte-hartze Sozialeko sariaren bidez, Nafarroan inskribatuta egonik, baldintza hauek betetzen dituen talde edo elkarte baten lana saritzen da: gazteriak parte hartzeko ekintzak bideratzeko tresna izatea eta eginkizun horretan jardun handikoa izatea, eta gazteek Foru Komunitateko garapen politikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturean eraginkortasunez parte hartzeko bideak bermatzea. Modu horretan, saria **Beriaingo Kaskikos Elkarteak** jaso du, eta Lehendakariak nabarmendu nahi izan du hamar urteko ibilbidean herriko adin txikikoekin garatzen ari diren lana. “Beriaingo zonan 120 haur daude izena emanda, eta gazteek Nafarroako garapen politikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturean modu eraginkorrean parte hartzea errazten eta bermatzen du elkarteak, jarduera-maila handiarekin”, adierazi du.

Azkenik, Erakunde edo Entitate batentzako saria ematen zaio gazteen aldeko lanarengatik nabarmentzen den erakunde edo entitate publiko edo pribatu bati edo toki entitate bati; hots, Nafarroako gazteen parte-hartze soziala, autonomia eta bizi-kalitatea errazten dituenari. Kasu honetan, Nafarroako Medicus Mundiko GAS taldeak (Gizarte Ekintzako Taldeak) jaso du saria; taldea 14 eta 24 urte arteko gazteentzako hausnarketarako eta parte-hartzeko espazioa sortzen aritzen da, hezkuntza ez formalaren eremuan. Barkosek proiektu honetan nabarmendu nahi izan du giza eskubideekiko duen konpromisoa, “gazte horiengana gerturatzen baititu pobrezia, genero-berdintasuna edo kontsumo arduratsua bezalako munduko arazoak, gazteek konpromisoa har dezaten etorkizun hobe baten alde”.

Galería de fotos



Teresa Álvarezek Pertsona Gaztearentzako modalitatean jaso du saria.



Kaskikos Elkarte gazteak , Parte-hartze Sozialerako modalitatean jaso du saria.



Nafarroako Medicus Mundiko GAS taldeak Erakunde modalitatean jaso du saria.